



AGINDUA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, GARDENTASUNARI ETA HERRITARREN PARTE-HARTZERI BURUKO LEGE-PROIEKTUA PRESTATZEKO PROZEDURA ABIARAZTEKOA

I. Zer premia dagoen proiektatutako erregulazioa gauzatzeko eta zer araudi dagoen indarrean horren inguruan.

Gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Legea beharrezkoa da, zeren, EAEko Administrazio Publikoan, gobernu irekia bultzatu nahi da nazioarteko estandarrei jarriki; alegia, printzipio hauek sustatzen dituen gobernantza-kultura bat bultzatu nahi da: gardentasuna, integritatea, kontuak ematea eta alderdi interesdunen parte hartzea; beti ere, demokraziari eta hazkunde inklusiboari laguntzeko, ELGAK gomendatzen duen moduan, eta Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzak aldarrikatzen, Euskal Autonomia Erkidegoa aliantza horren parte baita.

EAEko ordenamendu juridikoan, ez da legez garatu informazio publikora irispidea izateko eskubideaz Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen III. kapituluaz azaltzen dena eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13 c) artikuluan zabaldu zena, erregistroetako fitxategi eta dokumentuetara irispidea izateari dagokionez.

Egia da ezen, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 legearekin, 5.1.d) artikuluan, kudeaketa-gardentasuna sartu zela sektore publiko horrentzat jarduketaren oinarritzko printzipio modura, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legearekin, berriz, titulartasun publikoko dokumentuetara irispidea izateko eskubidea arautzen dela; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko artxiboen sistema osatzen duten artxibo-sistemetan gordailututa dauden dokumentuetara iristeko eskubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu ondareko dokumentuetara iristekoa.

Ikuspuntu sektorialetik, ingurumen-informazioaren irizpideari dagokionez, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak aitortzen du pertsonak eskubidea dutela ingurumenari eta baliabide naturalei buruzko informazioa lortzeko, eta justiziara irispidea izateko ingurumen-arloan; oinarritzko legeriarekin bat etorritik. Halaber, lege horrek ezartzen du zein diren publizitate aktiboko betebeharrak eta zer prozedura bete behar den irispidea

izateko ingurumen-informaziora; era berean, interpretazio-muga murriztaileak ezartzen ditu bere eremu sektorialerako. Alabaina, ez da aurreikusten erreklamazio-organo espezifikorik egongo denik aukeran administrazioarekiko auzibidean ezer aurkaratu aurretik.

EAEn, bestalde, ez da garatu informazio publikora irispidea izateko oinarrizko legeria, Sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legeak arautzen duena, lege horrek zehazten baitu aukera dagoela modu pribatuan erabiltzeko administrazioek eta sektore publikoko organismoek dituzten dokumentuak.

Era berean, posizionamendu propio bat falta da, eta, hala badagokio, garatu behar da Gobernu Irekiaren eredua lantzen duen tematika zabala. Ereduek, gardentasuna ez ezik, oinarrizkat hartzen ditu herritarren parte-hartzearen printzipioa eta administrazio-efikazia eta -efizientziarena; azken finean, oinarrizkat hartzen ditu administrazio onerako ezinbestekoak diren printzipioak, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikuluan jasotzen direnak, hala nola herritarrek duten eskubidea beren gaiak inpartzialtasunez eta ekitatiboki landu daitezzen arrazoizko epe baten barruan; beren kontrako neurri indibidualik hartu aurretik entzunak izateko eskubidea; jakiteko zein den erabaki politikoaren motibazioa..., baita beste eskubide batzuk ere, zeinak, gobernamentu onaren berezko funtzio publikoak egikaritzean, lotuta baitaude integritatearekin, ekainaren 26ko 1/2014 Legeak etika-kodeaz eta gobernamentu onaz ezarritakotik haratago (1/2014 Legea, Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituena).

II. Aplikazio-eremua.

Lege hau, funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarentzat izango da.

Beraz, ezarrita utziko du zer printzipio orokorrek gidatu behar duten, jorratzen dituen gaietan, sektore publiko horren funtzionamendua, eta printzipiook hedatuko ditu dagoeneko Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Lege onartu berrian aurreratu direnei, hala nola zerbitzu publiko bat, euskal herritar gero kritiko eta zorrotzagoei zuzendua, zeinek eskatzen baitute balio publikoa sortzen parte hartzea; horretarako, tresnak ematen ditu, lege honekin agortzen ez direnak baina lege honi esker bultzatuko direnak.

Eta, hori guztia, ahaztu gabe legea aplikatu behar zaiela, halaber, testuak berak zehazten dituen entitate pribatuei eta partikularrei, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoarekin dituzten harremanetan.

III. Beste araugintza-aukera batzuk, aintzakotzat har daitezkeenak.

Proposatutako erreformaren alderdiei heltzeko, badira beste aukera batzuk ere, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen kontzeptuak jasotzen dituzten gaiak jorratzeko EAEko sektore publikoaren Gobernu Irekiaren esparruan.

a) Hainbat tresna arauemaile autonomoen bidez, lege berriak onartzea, edo lehendik ere badirenak puntualki erreformatzea (gardentasun-legea; partaidetza-legea; ebaluazio-legea; Administrazioa antolatzeko legea, integritate-legea...).

b) Lege espezifiko bakar batean jasotzea erregulazio-premiak, berez lotuta dauden eta jorratu behar diren hainbat gairi buruzkoak, lege horrek ardatz nagusi iraunkorrak ezar ditzan, bat etorri onartu berri den Euskal Sektore Publikoko Legearekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearekin. Horri esker, erreferentziazko testu bat ezar daiteke, koherentzia emango duena Gobernu Irekiko kontzeptu zabalari buruzko printzipio eta arau orokor trinkoagoak ezartzeko orduan, oinarritzat hartuta gardentasuna, herritarren parte-hartzea, lankidetzaren publiko soziala eta publiko pribatua, eta politika publikoak planifikatuta eta ebaluatuta kontuak ematea; betiere, administrazio onaren eta gobernamentu onaren ikuspegitik.

Lege integrala, helburu zehatza duena, eta espero duguna erreferentzia juridikoa izatea, herritarren aldeko pertzepzioa hobetuko duena eta gai bakoitzaren esanahiaren balioa handiko, eta lagunduko duena administrazio-kultura bat sortzen, hala barnean nola kanpoan, araudiz proposatutako paradigma berrien oinarriaren gainean.

Era berean, nabarmendu behar da ezen, Gobernu Irekiaren eremuan, integritate publikoari lotutako gaiak ere biltzen direla; izan ere, horretarako, gai batzuk jaso zituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, zeinak arautzen baititu Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak. Halaber, gaur egun, Euskal Enplegu Publikoaren Legeak, berriki onartu denak eta oraindik argitaratzeke dagoenak, XI. tituluko II. kapituluan jasotzen du EAEko enplegatu publikoen kode etikoa eta jokabide-kodea. Hori dela eta, lege-proiektu honek ez du jasotzen zer gai dagoen lotuta integritate publikoarekin, baina aipatzen du dagoeneko zer printzipio aurreratu diren arau horietan, eta bere eremura zabaltzen ditu.

Aurretik adierazitakoarekin bat etorri, eta Jaurlaritzari buruzko 7/ekainaren 30eko 1981 Legeak 26.8 artikuluan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12. eta 13. artikuluetan xedatzen dutenaren arabera,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.-

Agintzea abiaraz dadila Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko lege-aurreproiektua prestatzeko prozedura, agindu honetan finkatutako helburuak eta irizpideak betetzeko, eta, zehazki, honako hauek:

Xedea eta helburua

Lege-proiektu honen xedea eta helburua da arautzea zein diren Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamenduaren funtsezko ardatzak (ikuspegi instrumentalago batetik, Sektore Publikoaren Lege Proiektuan xedatutakoaz harago, eta, kargu edo enplegu publikoak betetzen dituzten pertsonen printzipioen eta balioen ikuspegitik, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean eta EAeko Enplegu Publikoari buruzko lege-proiektuan xedatutakoaz harago), zeharkako irizpideak baitira; horrela, gure Gobernu Irekiaren ereduaren oinarriak jarriko dira, osagai hauek dituen triangulu kontzeptual batean oinarrituta: politika publikoak planifikatuz eta ebaluatuz kontuak ematea; kudeaketa publikoaren gardentasuna, eta herritarrek gai publikoetan parte hartzea eta laguntzea. Izan ere, triangulu horren helburua da gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-garapen iraunkorra lortzea, oinarritzat hartzen duena gobernu-ekintzaren, gizarte zibilaren eta jarduera sozial eta ekonomikoaren arteko oreka.

Proposatzen den erregulazioaren edukia

Honako esparru hau arautu behar da, proposatzen den erregulazioaren edukia izango baita:

- Xedapen orokorrak (xedea, helburuak, aplikazio-eremua eta printzipioak).
- Gardentasuna, kontuak emateko oinarri gisa, publizitate aktiboko betebeharrei eta informazio publikoa eskuratzeko bermeari dagokienez.
- Herritarren parte-hartzea eta lankidetzaren publiko-soziala eta publiko-pribatua, balio publikoa sortzeko.
- Politika publikoak planifikatuz eta ebaluatuz, kontuak ematea. Hori gobernu-ekintzan gauzatuko da.
- Eta, azken batean, administrazio irekiagoa eta herritarrentzat irisgarriagoa, arduratsuagoa eta eraginkorragoa eratzeko laguntzen duten alderdi guztiak, gobernu demokratikoaren eta giza garapen iraunkorraren funtsezko betekizun gisa.

Bideragarritasun juridikoa balioestea

Juridikoki, lege berria bideragarria izango da, zeren bat dator Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. paragrafoetan jasotzen diren eskumen eskusiboekin; izan ere, haiek arautzen dute zein den EAeko autogobernu-erakundeen antolamendua, araubidea eta jarduera, eta zein diren administrazio-prozedurako arauak, Zuzenbide substantiboaren espezialitateetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik datozenak, bai eta EAeko sektore publiko propiotik ere; betiere, Estatutuko beste arau batzuek eragiten ez dioten neurrian.

Eta erregulazioak errespetatzen du Estatuak bere eskumen eskusioan emandako oinarritzko araudia; betiere, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua, zeina administrazio publikoen araubide juridikoari buruzkoa baita, xedatzen duenaren arabera. Era berean, administratuei bermatzen die tratamendu komuna izango dutela administrazio publikoen aurrean, eta administrazio-prozedura erkidea beteko dela, eta soilik horrela jokatuko dela legez garatzen direnean Zuzenbide substantiboko espezialitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoko antolamendu propioa.

Sistema publikoko informazio-printzipioetarako, garapen bat egon da aurretik "Jaurlaritzaren" ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 53. artikuluan, artikulua horrek ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jarduketa printzipio hauetara egokituko dela: objektibotasuna, publikitatea, efikazia eta deszentralizazioa, bere organoen arteko koordinazioa eta, nolatan ere, baita lurralde historikoen artekoa; bestalde, "Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harreman"ei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 2.2 artikulua jasotzen du EAeko administrazioek efikazia- eta koordinazio-printzipioak beteko dituztela nork bere eskumenak egikaritzean.

Sistema berri bat ezarriko da; sistema horretan, politika publikoak ebaluatuta, kontuak emango dira, eta bermatu egingo da hala gardentasunaren eskubidea nola informazio publikora irispidea izatekoa. Hori bat dator Konstituzioak ezartzen duenarekin; izan ere, 103.1 artikulua arabera, Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta efikazia-, hierarkia-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera jardunez eta legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez; 9.2. artikulua arabera, botere publikoei dagokie lana erraztea herritarrek parte har dezaten bitzita politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean, eta, 20.1.d) artikuluan, informazioa libreki jasotzeko oinarritzko eskubidea ezartzen da. Era berean, bat dator Autonomia Estatutuko 9.2.e) artikulua ezartzen duenarekin, artikulua horrek jasotzen baitu botere publikoek betebeharra dutela herritar guztien partaidetza bideratzeko Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bitzitan.

Era berean, kontuan izan behar da zer arau aurreikusten den Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean. Izan ere, edozer ekintza politikoren funtsezko ardatzen oinarriaren atzean, hainbat betebeharrak ezartzen dizkie entitate eta organo ugari, oinarritzko legeria gisa.

Hein handi batean, erreferenteak dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea. Lege horiek oinarritzkoak dira, eta printzipioak aldarrikatu eta neurriak ezarri dituzte kudeaketa-ereduak ezartzeko eta bide emateko gardentasuna, plangintza eta politika- ebaluazioa lor dadin, eta herritarrek jardura publikoan parte har dezaten. Legeok, gero, beste lege-testu batzuetan izan dute garapena; hori dira, demokraziaren kalitatea hobetzeko prozesuaren zati gisa, Sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea, urriaren 24ko 1495/2011 Errege Dekretua, zeinean garatzen baita Sektore Publikoko Informazioa berrerabiltzeari buruko 37/2007 Legea, eta uztailaren 29ko 951/2005 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita Estatuaren Administrazio Orokorren kalitatea hobetzeko esparru orokorra.

Aipatzekoa da ezen, lege-proiektu honen oinarrian, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen 2000ko abenduaren 7ko Gutunean jasotako printzipioak daudela. Gutun horrek adierazpen- eta informazio-askatasuna aitortzen du 11. artikuluan; administrazio egokiaren eskubidea, 41. artikuluan, eta erakundeen dokumentuak edozein euskarritan eskuratzeko eskubidea, 42. artikuluan. Halaber, Europako Gobernantzaren 2001eko uztailaren 25eko liburu zuriaren gomendioetan ere oinarritzen da; liburu horretan, gardentasunari eta informazioari buruzko neurriak aldarrikatzen dira gizarte zibilarekin elkarrengaitzeko, bai eta irekitasuneko, partaidetzako, erantzukizuneko, eraginkortasuneko eta koherentziako bost printzipio berriak ere, demokraziaren oinarri modura eta gobernu onaren eskubidearen berme gisa, Administrazioek egunero erabiltzen dituzten prozedurei dagokienez, demokraziaren kalitatea eta erakundeen legitimitasuna hobetzeko politika, araudi eta emaitza hobekin.

Bideragarritasun materiala balioestea

Lege berria materialki ere bideragarria izango da, zeren, aplikatzen denean, hobetu egingo dira antolakuntza administratiboa eta herritarren eta Administrazioaren arteko harremanak, eta haiei buruzko pertzepzioa positiboago izango da, printzipio hauen sustapenean oinarrituta:

- Pertsona izango da erreferentea, eta Gobernuaren ekintzaren partaide eta erantzunkide gisa identifikatuko da, gizarte kritiko, zorrotz eta parte-hartzaile batean.

- Administrazioa, berriz, herritarren interesen kudeatzaile modura; autokritikara irekiko da, eta kontuak emango ditu herritarren aurrean eta kontrolpean, jarduera publikoa hobeto fiskalizatzeko.
- Administrazioa, bere jardunean, erakunde irisgarri, ireki eta hurbil, efikaz, efiziente, arduratsu modura agertuko da; batez ere, erakunde garden modura. Herritarri eragiten dizkieten erabaki publikoak hartzeko orduan eta funts publikoak maneiatzeko orduan, herritarren parte-hartze aktiboa eskatuko du, baina prozedurari alperreko oztoporik jarri gabe, zeren prozedurak bermatzailea izan behar du, eta aldi berean malgua eta moldakorra.
- Bermatuko da herritarrek informaziorako irispidea izango dutela, beren datu inportanteak maneiatu ahal izan ditzaten; horretarako, hainbat kanal erabili ahal izango dira, bai eta informazioaren teknologia berriek herritarrei eskaintzen dizkieten tresnak ere, erabilera-mekanismo irisgarriak dituztenak. Bestetik, eten digitalak edo hizkuntza formalak ez dute eragozpen izan behar herritarrek informazioa lortzeko. Aldi berean, zaindu beharko da informazioa beti izango dela egiazkoa, koherentea, egokia, kalitate handikoa eta bizkorra.
- Administrazio-prozedurak sinplifikatuko dira; horretarako, karga burokratikoak murriztuko dira; administrazioak proaktiboki jardungo du, eta hizkera juridiko irisgarriagoa eta ulergarriagoa erabiliko du.
- Administrazio-antolaketa sentsibilizatu, eta gaitu egingo da ondo planifikatzeko eta konturatzeko zer premia dagoen politika eta zerbitzuak ebaluatzeko prozesuak sustatzeko eta gero prozesu ebaluatzaileen berri emateko eta zabaltzeko; baita prozesu horien emaitzak eta eraginik handienak ere.

Zer ondorio izango dituen ordenamendu juridikoan

Lege berriak indarreko arau hauei eragin diezaieke:

- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- 5/2022 Legea, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena.

Zer ondorio izango duen administrazio ukituaren aurrekontuan, dagokion gaian, eta, halakorik bada, dagokion jarduera-sektorean

Lege berria aplikatzeak ez dakar gasturik handitzea; izan ere, dagoeneko, oinarriko legerian aurreikusten dira funtzio berriak, ondorioztatzen direnak publikitate aktiboari, informazioa eskatzen duten herritarren arretarako kudeaketari eta partaidetza-prozesuei buruzko funtsezko edukietatik, hein handi

batean oinarrizko legerian jadanik aurreikusitako gardentasun-betebeharrari dagokionez; funtzio horiek, bestalde, langile publikoen berezko funtzio gisa zabalduko dira, lanpostu-profilen edukien bilakaera-ikuspegian. Beraz, horrek ez du ekarriko zerbitzu berririk sortzea horretaz arduratzeko. Azken finean, kontua da modu desberdin batean lan egitea zerbitzu publikoko prozesuak kudeatzeko orduan. Beste alde batetik, araudi horrek berekin dakar gastua arrazionalizatzea eta gehiago kontrolatzea, politika publikoen ebaluazio- eta jarraipen-neurriak jarriko direlako, eta, ondorioz, efikazia eta efizientzia areagotuko direlako.

Zer izapide eta txosten egin behar diren gaiaren arabera

Legea onesteko, proiektu honen administrazio-izapideak egin beharko dira, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 128. artikulutik 133. artikulura bitarteko artikuluetan ezartzen duten ibilbidearen arabera; beti ere, kontuan izanik zer aukera egokitzen diren ondoen lortu nahi diren helburuetara, eta zer emaitza lortzen diren beharrezkotzat jotzen diren kontsultetatik, zeinak aurreikusten baitira bermatzeko aurreikusitako araudia egokia eta legezkoa dela.

Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatzen dena aplikatuz, espedientea erabat elektronikoki izapidetuko da PLATEA/Tramitagune Administrazio Elektronikoen Plataforma Komunean.

Aldez aurretik, herritarrei kontsultatzea

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluko –Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea– 1. puntuan xedatutakoa gauzatzeko, arau-testua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratu beharko da testu horrek aipatzen dituen alderdiei buruz. Kontsulta publiko hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoko iragarki-taularen bidez egingo da, eta jasoko du zer iritzi duten arauak uki ditzakeen herritarrek eta antolakunde edo elkarteek, zeinek batzen edo ordezkatzeko baitituzte arauak uki ditzakeen pertsonak, arauaren ondorioz beren eskubide edo legezko interesak ukituta ikus ditzaketanak edota harreman zuzena dutenak arauaren xedearekin. Kontsulta publiko horretan, gutxienez, honako hauek azaldu beharko dira:

- a) Zer arazo konpondu nahi diren ekimenaren bitartez.
- b) Ea beharrezkoa eta egokia den araua onestea.
- c) Zein diren arauaren helburuak.

d) Zein izan daitezkeen beste aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik batzuk.

- Era berean, argitara emango da Gobernu Irekia plataforman, kontsulta publikoak egiteko gune ez-formala baita.

Hasiara fasea

- Abiarazte-agindu hau eman, eta argitara emango da hala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoko iragarki-taulan, nola Legesarea ezagutzak partekatze lankidetzaren eta Gobernu Irekia - Irekia plataforman. Agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeak esan nahi du automatikoki eman zaiela beraren berri sail guztiei, ekimenaren egokitasunari buruzko oharrik egin ahal izan ditzaten, hala nahi izanez gero.

- Aginduari, bestalde, txosten bat erantsiko zaio. Txosten horretan, jasoko da zer eragin- eta emaitza-ebaluazio edo bestelako ebaluazio egin zaizkion proiektatzen den aruari edo haren eraginpeko xedapenei. Horrez gain, lehenengo balioespen bat ere jasoko da, arrazoitua bera, eta azaltzen duena zer garrantzia duen proiektatutako arauak genero-ikuspuntutik; horretarako, berdintasuneko administrazio-unitateen aholkularitza izango da.

- Kontuan hartuko da ea zer ekarpen edo oharpen egiten diren, halakorik egiten bada, abiarazte-agindua iragarki-taulan, Legesarean eta Irekian argitaratu ostean; hori guztia, berriz, bermatzeko egokia eta legezkoa dela xedapen orokorrean arautu nahi dena. Ezin dugu ahaztu ezen, gobernu irekiko kultura sustatzean, zeinak bere barnean jasotzen baitu informazio publikora irispidea izateko eskubidea eta erabaki publikoetan parte hartzekoa, ahal hori gauzatzen duen prozedurak bermerik handienak izan behar dituela herritarrentzat, eta berme horiek berak zaindu behar direla ahala egikaritzean eta hari buruzko arauak prestatzeko prozedurak gauzatzean.

Aurretiaz onestea

- Behin lege-proiektua idatzita, haren testu elebiduna onartu beharko da, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez; beti ere, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.5 artikuluan xedatzen denaren arabera.

- Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak dauka espedientearen egiteko eskumena. Zuzendaritza horrek memoria bat egin beharko du arau-eraginaren azterketari buruz, eta memoria horrek, bestalde, abiarazte-agindua jaso edo berretsi behar du.

- Proposamenaren egokitasuna eta aztertutako erregulazio-aukerak

- Eduki eta azterketa juridikoa. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko zerbitzu juridikoak emandako txosten juridiko baten bidez gauzatu ahal izango da
 - Proposatutako araua eskumenak banatzeko ordenara egokitzeari buruzko azterketa.
 - Zer eragin duen ekonomian eta aurrekontuan. Txosten ekonomiko baten bidez garatu ahal izango da.
 - Zer administrazio-karga dakartzan proposamenak
 - Generoaren arabera eraginari buruzko txostena
 - Euskararen erabilerari buruzko txostena
 - Haur eta nerabeetan duen eraginari buruzko ebaluazioa; gazterian duen eraginari buruzkoa, eta beste eragin garrantzitsu batzuei buruzkoa.
 - Zer ekarpen jaso diren herritarrei alde aurretiko kontsulta-izapidea egin eta gero.
 - Irisgarritasunari buruko azterketa
 - *Ex post* ebaluazioa aurreikustea
- Onartzen den testua, berriz, Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio, hala xedatzen baita Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean.

Instrukzio-fasea

Txosten eta izapide guztiak aldi berean egingo dira, baliabide telematikoen bidez; horretarako, hilabeteko epea izango da, aurretiazko onarpena duen testua Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoan argitaratzen denetik hasita:

- Funtzio Publikoko Zuzendaritzako aurretiazko txostenak, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzakoak eta Hizkuntza Politikakoa.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoko txostena, bat etorritik Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1.h) artikuluekin eta agentzia horretako zuzendariak 2005eko azaroaren 28an eman zuen ebazpenaren bosgarren artikuluko 3. b) apartatuan ezarritakoarekin.
- Entzunaldia emango zaie EAEko erakunde guztiei; horretarako, iritzia eskatuko zaie EUDELI eta hiru foru aldundiei. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren sail guztietara bidaliko da, behar izanez gero alegazioak egin ditzaten.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluan —herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoan— xedatzen dena eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022

Legearen 17. artikuluan ezartzen dena betetze aldera, bete egin beharko da herritarrei entzuteko eta informazio publikoa emateko izapidea, jasotzeko zer iritzi duten eta zer ekarpen egiten dituzten, halakorik egitea egoki iritziz gero, herritarrek eta entitateek lege-proiektuari buruz.

Era berean, entzunaldi-izapidea emango zaie enpresa- eta sindikatu-antolakundeei.

Behin aipatutako txostenak eta izapideak osatu eta gero, beste testu bat idatziko da. Testu horretan, aldaketak jaso beharko dira, beharrezkoak jotzen direnak nahitaezko eta funtsezko txosten- eta irizpen-izapide espezifikoak bete ostean; bestetik, jasota geratuko da testua ez dela aurretiazko onarpen-aginduan jaso zen dokumentu bera. Bestalde, bitarteko elektronikoak erabiliz, eskatuko da izapide espezifikoak egiteko txosten eta irizpen hauek egiteko, nahitaezkoak eta funtsezkoak baitira:

- Lan Harremanen Kontseiluko eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordeko nahitaezko txostenak. Hilabeteko epea emango da haiek ebaluatzeko.

- Tokiko Gobernuen Batzordeko nahitaezko txostena, bat etorritik Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90, 91 eta 112. artikuluek aurreikusitakoarekin eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 21. artikuluekin.

- Memoria ekonomikoa egin aurretik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena eskuratuko da. Txosten horrek jaso beharko du zer karga administratibo ezarriko diren, halakorik ezartzen bada, eta zer kostu ekarriko dizkien herritarrei.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jasoko da, bat etorritik Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legean xedatutakoarekin eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 25. artikuluekin.

- Batzorde horren irizpenaren iradokizunen ondorioz aldaketarik egingo balitz, horren berri emango zaio Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.2 artikulua betetzeko; beti ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen azken xedapenetako lehenaren idazketaren arabera.

- Aholku Batzorde Juridikora bidaltzen den dokumentazio bera helaraziko zaio Eusko Legebiltzarrari, hala xedatzen baita Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean.

Baldin eta edozein izapidetze-fasetan eta egindako edozein izapideren ondorioz erabakitzen bada komeni dela aukera ez-erregulatzailera jotzea, espedientea artxibatuko da. Horretarako, Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren agindu bat emango da, eta arrazoiak azalduko dira.

Amaitzeko eta onesteko fasea

- Behin betiko idazkera emango zaio lege-proiektuaren testuari, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Era berean, espedienteari prozedura guztiaren memoria laburra erantsiko zaio, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 24. artikuluko bigarren, hirugarren eta laugarren azaltzen diren baldintzetan, hurrenez hurren.
- Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, aintzat har dezan.

Zer izapide egin behar den Europar Batasunaren aurrean

Lege-proiektu honetan, kontuan izanik zen diren arauaren aplikazio-eremua eta helburua eta xedea, ez da izapiderik egin beharko Europar Batasunaren aurrean.

Euskaraz eta gaztelaniaz idazteko metodoa

Euskararen 10/1982 Legearen 8.1 artikulua betetze aldera, HAEEko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak itzuliko du erregelamenduzko araudiaren testuaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioa, lege-proiektu baten testua baita.

Era berean, aurretik adierazi den moduan, alderdi horretan, Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioari jarraituko zaio, akordio horrek onartzen baitu zer neurri jartzen diren bi hizkuntzatan idazteko lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak. Horrela, testu elebidun osoarekin egingo dira egin beharreko negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak; era berean, testu elebidun osoa bidali beharko da instrukzioaren hurrengo faseetako nahitaezko txostenak eta irizpenak eskatzeko.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura osoan zehar, elebiduna izango da araugintza-prozedura, eta hizkuntza-eskubideak bermatu egingo dira, hala araua prestatzen parte hartzen duten guztienak, nola arau-hartzaileenak; bat etorriz Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 2/2022 Legearen 5. artikuluan ezarritakoarekin.

Bigarrena.-

Gobernu Irekiaren Zuzendaritza izendatzea arestian aipatutako prozedura izapidetzeko organo, bat etorriz urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 13. artikulua 1 paragrafoko b) epigrafeak zuzendaritza hori esleitutako eskumenekin: “gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bultzatzea politika publikoen definizioan, kudeaketan, gauzatzean eta ebaluazioan” (8/2021 Dekretua, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa).

Hirugarrena.-

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, prozedura abiarazteko agindu hau argitara emango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta, behin agindua argitaratuta, sail guztiek automatikoki izango dute beraren berri, ekimenaren egokitasunari buruzko oharra egin ahal ditzaten hala nahi izanez gero.

Laugarrena.-

Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Akordioan, zeinaren bidez jarraibideak onartu baitziren xedapen orokorrak izapidetzeko, xedatutakoarekin bat etorriz, agindu hau ezagutzera emango da, bai Legesarea lankidetzagunean, bai Gobernu Irekia- Irekia plataforman.

Vitoria-Gasteiz, 2022 abenduaren 2a

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUA

OLATZ GARAMENDI LANDA